



ESKOLA ELE ANITZA ADIERAZPENA

2016-04-21



ESKOLA ELE ANITZA HARATAGO PROPOSAMENA

Orain lortutakoa garrantzitsua izanik, baditugu oraindik erronka garrantzitsuak gure arreta eta erantzukizuna eskatzen dutenak.

Ikasle guztiek elebitasun erreala bermatuta ez izatearen arrazoien artean, badira aspektu batzuk argi zamar ageri direnak:

- A ereduaren eraginkortasun eza eta bazterketa sozialaren iturri, B ereduaren aportazio eskasa kasu askotan, eta gainera D ereduaren(familiak gehien eskatzen dutena) eznahikotasuna zenbaitetan.
- Gelan erabili ditugun zenbait metodologiak eta normalkuntza planek frogatu duten muga, nahiz eta ikastetxe publiko askok egindako ahalegina handia izan den.
- Eskola bakarrik ez dala nahikoa euskararen normalkuntzaren helburua bermatzeko, nahiz eta bere ekarpena oso garrantzitsua den.
- Egoera honen aurrean, arduradun politiko desberdinek azaldu duten konformismoa, behar ziren hobekuntza metodologikoak, baliabideak, eta erreformak ez bultzatzeagatik.
- eta beste zenbait arrazoi,....

ZER DIOTE IKERKETEK ETA EBALUAZIOEK

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak duela hilabete batzuk egindako euskararen gaineko jarreraren eta iritzien ikerketa batek, adierazi zuen herritarrek elebitasuna eta eleaniztasuna **"balio positibotzat" hartzen dituztela, eta ez dute kontrajartzen hizkuntza bat eta beste". "Herritarrek hizkuntza bat eta besteren aldeko hautua egiten dute".** Gainera, herritarren iritziz, **elebitasuna elkarbizitzarekin eta berdintasunarekin lotzen dute. "Euskara guztiona da", "guztiontzako aukera eta prestigio bide da euskara".**

Bestalde, EAEko herritarrek, "elkarrenganako errespetua eta diskriminaziorik eza eta guztien hizkuntza eskubideak" defendatzen dituztela azpimarratu dute, eta, etorkizunerako, **"herritar hirueledun orekatuak nahi dituzte".**

Hala ere, herritarren euskararekiko iritzia eta jarrera ere "argi-ilunez beterikoa" dago, "non argiuneak edo ikuspuntu positiboak gailentzen diren argi eta garbi". Horrela, esan du herritarren iritzi eta jarrerak ezin direla "zuria ala beltza", "hau edo hura" edo "kolore bakar eta ikuspegi dikotomikoetan" azaldu. Hauek

ñabardura eta kolore gama zabalekoak dira eta osagarritasunean oinarritutako ikusmoldea osatzen dute.

Eskolaren zeregina da, hiritarren eskaera hauek kontutan hartzea eta belaunaldi berria bide horretan prestatzea. Dakigunez, bide orri honetan jarrerak oso garrantzitsuak dira, eta gure erantzukizuna da gaur dauden ustetan oinarritutako ilunak, poliki poliki egitateetan oinarritutako argiak bihurtzea.

ISEI-IVEIren 2015eko TXOSTENA

Bestalde, ISEI-IVEIk argitara eman duen 2015eko Txosteneko datuek, adierazten dute Euskal Hezkuntza Sistemaren garapenak azken urteotan ez duela izan espero zen bilakaera positiboa. Azken urteotan Euskaren ezagutza mailak bera egin du.

Azken hamarkadan emaitzak nahiko iraunkor mantendu badira ere, ezagutza maila ez da hobetzen.

Emaitza eta oszilazio hauek adierazten dute, elebitasun erreala ez dagoela bermatuta ikasle guztientzat, eta okerreña dena, ikaskuntza sistemak geldialdi kezagarria jasaten ari dala, eta hezkuntza sisteman premiazko erabakiak behar direla, ikasleen arteko desberdintasunak aregotzen joan ez daitezen.

ZEIN DA ESKOLA PUBLIKOAREN PROPOSAMENA

Ondoren azalduko dugun proposamena eskolaren zeregin pedagogikotik egina dago, eta denbora faltagatik ikuspegi horretara mugatuko gara.

Euskal Eskola Publikoa Haratago dokumentuan esaten genuena gogora ekarri, eta Heziberri planaren egite prozesuan hemen gauden elkarteok Hezkuntza Sailari egin genizkion proposamenak bergogoratu nahi ditugu:

1. Zer dio indarrean dagoen legediak koofizialtasunari eta elebitasunari buruz?

a) *Euskal Eskola Publikoaren Legearen III. tituluko 18. artikulua arabera, bi hizkuntzen ahozko zein idatzizko ulertze eta adierazte gaitasuna benetakoa izan behar da, ikasleak, gutxienez, ohiko harremanetarako hizkuntza gisa erabili ahal izan ditzan.*

b) *Euskadiko Eskola Kontseiluak hizkuntza ofizialetaz egin zuen irizpenean honela zion: «Euskara eta gaztelania dira hizkuntza ofizialak hezkuntzaren alorrean, beraz, ikasleek biak ikasteko eskubidea eta eginbeharra dute, baita biak erabiltzeko eskubidea ere».*

Esan dugun bezala, gaur egun oraindik bi puntu horietan aurrikusten zena ez dago erabat bermatuta.

2. Hizkuntzen ikaskuntza integraturako lege markoa

Bi hizkuntza ofizialen ezagutza eraginkorra eta atzerriko hizkuntzaren ezagutza egokia ahalbidetuko duen lege marko berria aldarrikatzen dugu. Lege marko honek gehiengo politiko eta sozialaren adostasuna izan beharko du, era honetan, Euskal Herriak behar duen bizikidetzak kulturalerako oinarriak ezarriz.

Beste helburu batzuen artean, lege berriak premiaz aldatu behar du gaur egungo hizkuntz ereduen sistema, ikasle guztiek bi hizkuntza ofizialak ikasteko bermea izan dezaten, eta bazterketa sozialaren eragile izan ez daitezen.

-Lege marko berriak erreferentziatzeko mailak (irteera perfila) ezarri beharko lituzke, eta **ikasle guztiek gutxienezko maila horietara heltzeko behar diren baliabideak, eta estrategia metodologikoak bermatu.**

3. Errendimendu eta hobekuntza ebaluazioak, irismenak, txostenak

Nazioarteko hainbat txostenek adierazten dutenez, irakaskuntzaren kalitateak ikasleen emaitzetan oso eragin handia dauka, beste alderdi batzuk (ad: gelaren tamaina, konposaketa,...) baino handiagoa. Hezkuntza kalitate hori lotuta dago hainbat alderdiekin: irakasleen oinarrizko gaitasun kognitiboak, ezagutza pedagogiko-didaktikoa, ikasgaiaren ezagutza sendoa eta eskarmentua, besteak beste. Beste aldetik, hizkuntza edozein ikas-irakas prozesutan funtsezko elementua da, eta irakaskuntzaren eraginkortasuna, beste faktoreen artean, hizkuntzen erabilera eraginkorrekin lotuta dago. Horren ildotik, badaude ebidentzia zientifiko sendoak irakasleen hizkuntz gaitasunak, eskola arrakasta lortzeko duen eragina baieztatzen dutenak.

Gainera, hizkuntzen izaera instrumentala kontutan izan beharko genuke, beste konpetentzien garapenerako bitarteko eta giltza direlako. Ezaugarri hauek ematen diote konpetentzia komunikatiboari bere izaera transbertsala, eta ondorioz, bere garapenean **irakasle guztiek dugun erantzukizun partekatua.**

Hala ere, ikastetxeon esperientziek eta hezkuntza politiken mugek erakusten ohi digute, badirela zenbait aspektu hobetu beharrak, ikasle guztien elebitasuna eta eskola arrakasta hobeto bermatu ahal izateko:

3.1 Ikastxeon aldaketa metodologikoa: Orain arte erabili ditugun gelako metodologiei buruzko gogoeta sakona egin behar dugu. Gogoetaren edukin nagusiak hauek izan daitezke:

Eremua 1: Ikasgelan euskararen erabilera areagotzea

- *Ikasleen jarrerak eta jokabideak euskararekiko hobetu, indartu. Motibazio jarduerak*
- *Aldaketa metodologikoa euskaren erabilera indartzeko: jarduera ludikoak, kooperatiboak,...*
- *Teknologia berrien aukerak ezagutu eta hauek txertatu ikaskuntza prozesuan.*
- *Irakasleriaren sentsibilizazioa ikastetxetan euskara bihurtzeko komunikaziorako hizkuntz nagusia gelan.*

Eremua 2. Eskolan euskararen erabilera areagotzea

- *Jolas-orduak eta jantokiak ikasgune bezala kontsideratu. Espazio hauek dinamizatzeko jarduerak diseinatu.*
- *Eskola-orduz kanpoko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera indartu.*
- *Kirola Euskaraz: eremu honen erakargarritasuna eta egokitasuna aprobetxatu euskara izateko komunikaziorako hizkuntz nagusia. Eremu honetan, entrenatzaileen eta hezitzaileen prestakuntza zaindu erreferente linguistikoak ere izateko.*
- *Irakasleriaren sentsibilizazioa ikastetxetan euskara bihurtzeko komunikaziorako hizkuntz nagusia gelatik kanpo.*
- *Gurasoen sentsibilizazioa landu.*

3.2 Ebaluazioaren kultura (barnekoa zein kanpoko), ikastetxe guztietan sustatzea ezinbestekoa da irakas-ikas prozesuen kontrolerako. Ebaluazio horien emaitzek, izan behar dute ikastetxeetako hobekuntza eta indartze planak garatzeko abiapuntua.

3.3 Administrazioaren, hezkuntza zerbitzuen eta ikastetxeen zeregin partekatua:

Hezkuntza Diagnostiko probetan lortutako emaitzek erakusten dute, eta Euskadiko skola Kontseiluak 2010-2012 aldirako egindako txostenean ikus daiteke, ikasleen zati handi batek (%30a) Euskaran hasierako mailako gaitasuna besterik ez duela lortzen. Egoera honi aurre egiteko, eta gaur egungo gizarte bazterketa arriskuak saihesteko, ikastetxe bakoitzak bere estrategia pedagogikoak hobetu behar ditu, eta horretarako, behar dituen aholkularitza laguntzak, autonomia pedagogikoa eta baliabideak ezinbeskotzat jotzen ditugu.

Bereziki, gutxieneko hizkuntza gaitasunak lortzen ez dituzten ikasleei, arreta handiena eskaintzea, bere eragozpenak hautematen diren une beretik.

Ildo honetatik, ISEI-IVEIren ebaluazioak, Euskadiko Eskola Kontseiluaren txostenak eta ikastetxe bakoitzaren ebaluazioak, erreferentzia moduan hartu behar dira, sisteman egin behar diren egokitzapenak garaiz egiteko, eta ezarri behar diren baliabideak erabakitzeke, ikastetxe bakoitzaren beharretatik abiatuta.

Testuinguru honetan, gizarte bazterketaren arriskuan dauden ikasleen eta ikastetxeen getizazioaren egoerei aurre egiteko premiazko neurriak aldarrikatzen ditugu.

4. Eleaniztasun progresiboa: Ikastetxearen HIZPRO lanabes klabea

Eleaniztasuna era progresiboan bermatzeko, zenbait prozesu osagarri bultzatzea beharrezkoak ikusten ditugu:

HIZPRO dokumentuaren garrantzia azpimarratu behar da, eta ikastetxe guztiek hizkuntzen ikaskuntza planifikatzeko ezinbesteko tresna bihurtu. Ikastetxeko Hizkuntz Proiektua izango da ikastetxearen gida eta lanabesa, hizkuntzen ikaskuntza modu integratuan ahalbidetzeko.

Honela, ikastetxearen hizkuntza proiektuak bat egin beharko du ikastetxearen hezkuntza proiektuarekin eta curriculum proiektuarekin, ikastetxeko proiektu pedagogikoaren koherentzia bermatzeko.

Hezkuntza administrazioak erreferentziazko HIZPRO eredu sortzea garrantzitsua izanik, ez da nahikoa ikastetxe guztiek beren hizkuntza proiektua eratu dezaten. Hezkuntza Sailaren determinazioa, aholkularitza pedagogikoaren lidergoa, eta ikastetxearen konpromisoa eta ezagutza, beharrezkoak dira, ikastetxe bakoitzak bere **Hizkuntz Proiektua ikasleen tipologiari eta ikastetxearen testuinguru sozio-linguistikora egokituta** osatzeko.

Ikastetxe publikoen eredu pedagogiko inklusiboa bermatzeko, Hizkuntza Proiektuaren helburuek eta planteamendu didaktiko-pedagogikoek, bat etorri behar dute aukera berdintasuna eta ekitatearen printzipioekin, ikastetxeko ikasle guztien arrakasta ahalbidetzeko.

Garrantzitsua da Hizkuntza Proiektuaren eraginkortasuna eta bideragarritasuna ziurtatzea. Horretarako ikastetxeok Hizkuntz Proiektua ebaluatzeko prozedurak erabaki beharko ditu, proiektuan zehaztutako helburuak betetzen ari direla ziurtatzeko, eta bere kasuan zuzenketak edota egoitzapenak proposatzeko.

5. Irakasleen prestakuntza: esperimentazioa eta ikerkuntza

Gure ustez, hizkuntzetako irakasleen prestakuntza didaktiko-pedagogikoak bi bidelagun garrantzitsu izan behar ditu: ikasgelako metodologia berriztatzaileen esperientazio proiektuek, eta hizkuntzen ikaskuntzan ikerkuntzek adierazten digutena. Prestakuntza hau, hizkuntzen ikaskuntza era integratuan abordatzera bideratu beharko da, eta horretarako hizkuntzen trataera integrala bermatzeko metodologiaren ezagutza areagotu behar da.

Kontutan hartu beharreko beste alderdia, gela barruan askotan dugun aniztasuna da. Irakaslea ikasleentzat hizkuntz eredu bihurtzen da (gauza bera gertatzen da hizkuntza guztiekin) eta hizkuntz gaitasun nahikorik izan behar du ikasle bakoitzaren ezaguera mailara egokitzeko, eta ikasle guztien arrakasta ahalbidetzeko. Horregatik, oso garrantzitsua da hobetzea irakasle ororen hizkuntz gaitasuna eta kompetentzia komunikatiboa, eta bereziki euskaraz. Irakas-ikas prozesuetan erabiltzen ditugun komunikazio jarduerak kalitatezkoa izan behar dute, ikasleen asimilazio prozesuek esanguratsuak izan daitezen. Horretarako gaurko eskakizun mailak gainditzeko programak indartu behar dira.

Bestalde, denborak erakutsi digu, hobekuntza metodologikoa bultzatzeko, ikastetxeen eta irakasleen esperientziak trukatzeko oso kontutan hartu behar diren estrategiak direla, eskola publiko guztien aurrerapena ahalbidetzeko. Hauek dira Partekatuz Ikasi bezalako programen oinarriak.

Eleaniztasunari dagokionez, Hezkuntza Administrazioak ikastetxeetan esperientzia pilotu eleanitzak bultzatu behar ditu, horretarako, aholkularitza pedagogikoaren laguntzarekin hirugarren hizkuntzaren ezarpen progresiboki ahalbidetuz, eta beti, ikasle guztiek bi hizkuntza ofizialen gutxieneko hizkuntza gaitasuna lortzen dutela bermatuz.

Ikastetxeen proiektu pilotu eleanitzen arrakasta eta testuingurura eta ikasleen ezaugarrietara egokitzen direla bermatzeko, ikastetxe publikoei autonomia marko malguago bat aitortu behar zaie. Autonomia pedagogikorako marko hau, irekia izan behar du, ikastetxe publikoek esperimentera eta berrikuntzara erakartzeko.

Bestalde, ikerkuntzaren funtzioa oso garrantzitsua jotzen dugu, alde batetik metodologiaren eraginkortasuna egiaztatzeko, eta bestetik hirugarren hizkuntzaren sarrerak, ez duela elebitasun erreala lortzeko eragozpenik suposatzen. Evidentzietan oinarrituriko metodologiak lehenestu behar dira.

Eleaniztasun proiektuen programak, tipologia desberdinetako ikastetxe eta indize sozio-ekonomiko eta kultural desberdinetako ikasleen partaidetza

bermatu beharko du, azken ebaluazioan eskola sistemaren aniztasuna adierazgarria izan dadin.

Amaitzeko, uste dugu arreta berezia ezarri behar zaiola sistema publikora hurrengo urtetan sartuko diren irakasle berriei. Gure ustez, sistemara sartzeko, kreditazio hirueledun nahikoa izatea meritu bezala kontsideratu behar dala, europako hizkuntzen markoa erreferentea bezala hartuz.

FRANTSESARI BURUZ GOGOETA LABUR BAT

Euskara, Euskal Herriko biztanleen harremanetarako oinarria izan beharko lukeela egia izanik, Iparraldea eta Hegoaldearen arteko kohesioa eta harreman handiago bat lortzeko, hiritarrok gutxienez beste herrialdeetako hizkuntza ofizialaren oinarrizko ezagutza bat izatea garrantzitsua izango litzatekeela pentsatzen dugu.

Estatu batek zein besteak defendatu duten elebartsunak, eragotzi dute gure hizkuntzek zituzten antzekotasunak, biak latinatik eratorritakoak izanik. Gauza bera esan genezake erromanetik, gaskoatik eratorritako zenbat hitzei buruz.

Hegoaldean, frantsesaren oinarrizko ezagutza bat izatea defendatzea, logikoena litzateke hizkuntzen trataera integratuaren planteamendu batean.

ESKOLA PUBLIKOAREN EKARPENA EUSKARAEN NORMALIZAZIOARI

Euskararen erabilera eta garapena arautu duten maila desberdinetako legediek, bultzada garrantzia izan dira gure hizkuntzaren normalkuntzaren prozesurako. Hogeita hamar urte baino gehiago bete dira Euskararen Normalkuntzarako Legea eta Hizkuntz ereduen arautegia argitaratu zenetik. Hogeitaz biko baino gehiago bete dira eskola publiko elebidunaren oinarriak zehazten zituen Eskola Publikoaren Legea argitara eman zenetik.

Araudi hauek zehazten zuten bidetik, eskola publikoaren ekarpena euskararen ikaskuntza prozesuari, funtsezkoa izan da gure hizkuntzaren normalizazio prozesurako. Denbora luze honetan, irakasleriak euskalduntzeko egindako ahalegina familien B eta D ereduak eskaerari erantzuteko, eta eskola publikoak hezkuntza sistemari egindako ekarpena ikasle elebidunen prestakuntzan gure aitortzea merezi du.

Milesker egindako lanagatik.

AZKEN GOGOETAK

ESKOLA PUBLIKOAREN LEGEAN AURREIKUSTEN ZIREN ESKOLA ELEBIDUNAREN GARAIA EZ DA AMAITU. ELEBIDUN EFEKTIBOA BERMATZEKO GARAIA DA.

HIZKUNTZEN IKASKUNTZARI DAGOKIONEZ, EZ DA DIAGNOSIEN GARAIA. GURE HEZKUNTZA SISTEMAREN DESOREKAK NON DAUDEN JAKITEKO ETA BEHARREN ESTIMAZIOA EGITEKO DATU NAHIKOAK DITUGU.

IKASLE EUSKALDUN ELEANITZAK LORTZEA DA ESKOLA PUBLIKOAREN HELBURUA, BAINAN IKASTETXE ETA IKASLE GUZTIENTZAT HELBURU HORI BERMATUZ, LORTUKO DUGU KOHESIO SOZIALA ETA ELKABIZITZA KULTURALA.

MILESKER GUZTIOI